

BEZEROEN SEGMENTAZIOA

Gure proiektua Europa mailan Erasmus+ programan parte hartzen duten unibertsitate ikasleentzat zuzenduta dago.

- Erasmus egiten duten ikasleak:

Erasmus+ programan parte hartzen duten unibertsitateko ikasleak dira gure proiektuaren hartzaile nagusiak. Normalean, ikasle hauek bigarren, hirugarren edo laugarren mailan daude. Horren ondorioz, parte-hartzaileen adin tarte normala 20 eta 25 urte bitartekoa izaten da.

Erasmus+ programan 27 Europar Batasuneko herrialde dagoz eta 6 herrialde elkartu dira programa EB kanpotik:

EB-eko herrialdeak: Alemania, Austria, Belgika, Bulgaria, Zipre, Kroazia, Danimarka, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Herbehereak, Hungaria, Irlanda, Italia, Letonia, Lituania, Luxenburgo, Malta, Polonia, Portugal, Txekiar Errepublika, Errumania, Eslovakia, Eslovenia eta Suedia.

EB kanpotik: Islandia, Liechtenstein, Norvegia, Ipar Mazedonia, Serbia eta Turkia

Egonaldien iraupena normalean 3 eta 12 hilabete artekoa izaten da, ohikoenak sei hileko bateko (5–6 hilabete) edo ikasturte osoko egonaldiak direlako.

Erasmus+ programan parte hartzeko, ikasleek honako baldintzak eta beharrak izaten dituzte:

1. Unibertsitatean matrikulatuta egotea eta gutxienezko kreditu kopuru bat gaindituta izatea.
2. Hizkuntza gaitasun minimoa izatea harrera-herrialdeko edo ikasketa-hizkuntzan.
3. Ikasketa-hitza (Learning Agreement) prestatzea.
4. Autonomia pertsonala, moldagarritasuna eta kultura arteko interesa.
5. Egoitza, aseguru eta oinarriko baliabide ekonomikoak antolatzea.

Europa mailan 1.500.000 pertsona urtean betetzen dabe Erasmus+. Baina gure ustez 100.000 pertsona erabiliko dabe gure aplikazioa lehenengo urtean, % 6,66 dela. Hurrengo urteetan zenbaki hauek igoko direla uste dogu.